



## **Iratzarriren hegoaldeko koordinakundeak "Orain independentziara!" ponentzia onartu du.**

**Iratzarrik, Aralarren gazte antolakuntzak jakinarazi duenez, hilabeteroko hegoaldeko koordinadorak aho batez onartu zuen "hurrengo hilabeteetan iratzarriren oinarri eta bultzada" izango dena.**

"Orain, independentziara!" titulupean garatutako dokumentuak bi ildo garatzen ditu; antolakuntzarena alde batetik eta politikoa bestetik, eta bere lehenengo partean baieztatzen duenez "Euskal Herriaren osotasunean jada ematen den borondate politiko komun baten aurrean gaude" adibide argi bezala "Nafarroa Bai, eta Iparraldeko Euskal Herria Bai koalizioen esperientziak eta EAEn Aralarren sorreratik emandako espainiar nazionalismoaren botuen beherakada" aipatuz. Iratzarrik, gainera ulertzen du "kontextu honetan inoiz baino garrantzitsuagoa dela ezker abertzale zibil eta zabal bat."

Gazteria independentistaren esanetan "prekarietate laborala, etxebizitza eskubidea, hizkuntz eskubideen urraketa, matxismo estrukturala, homofobia soziala eta arrazismoa" dira Hego Euskal Herriko gazteen arazo nagusiak, eta horri gehitu behar zaio "gazteriak, euskal gizarte guztiak bezala, ez daukala herri bezala bere etorkizuna erabakitzeko eskubiderik." Eztabaida prozesu baten ondoren textua aho batez onartu zen.

Hegoaldeko koordinakundean Aralar barneko Iratzarriren ordezkariak aukeratu ziren ere, eta erakundearen adierazpen organu "Ekintzaile" aldizkariaren 4. zenbakia hurrengo urrian kaleratuko dela informatu zen, ala nola azaroan, seguruenik Asparrenan (Araba) egingo diren gazteen lanaldi batzuk ere bai.

Aralarko gazteriek bestalde azken asteetan "mugimendu antimornarkikoen jasandako erasoak" salatu zituzten, eta euren "kriminalizazioa" gaitzetsi, horretarako elkartasuna adierazi nahi izan zieten Gironan erregeen argazkiak erretzeagatik auziperatu nahi dituzten gazteei, eta "El jueves" nahiz "Deia"ko kazetariei ere bai. Gazteria abertzaleen esanetan "hauek bezalako prozesuak eta 18/98renak argi uzten dute espainiar estatuan ez bagoela botere banaketarik" eta "Nafarroan emandako mugimenduekin argi geratzen da Estatuarentzat edozerk balio duela Euskal Herria eta bere herritarren kontra ekiteko."

Abiadura Haundiko Trenak edo Baztenen egin nahi duten Magnesita harrobiak eragingo duen ingurugiro-narriadura izan ziren, besteak beste, bileran jorratutako beste gaiak.

Oinarri hauek ezarrita, Iratzarrik bere jarduera "gizarte eta gazte mugimenduekin elkarlanean" gauzatuko dituela iragarri zuen, eta bere hurrengo Hegoaldeko koordinakundea urriaren 20an Gasteizen egingo duela jakinarazi.